

## Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

### Urtean Zeharreko 29. Igandea

2009 Urriak 18 (B urtea)

Patxi Otamendi

Isaias 53, 10-11

Hebertarrei 4, 14-16

Markos 10, 35-45

- Gaurko eszenan gizakien erro-erroan sustraiturik dirauen gurari baten ironia edo parodia ematen zaigu: *botere nahia*. Santiago eta Joanen eskaeran oso nabarmen adierazten da irrika hori, eta Markosek oso azpimarratua uzten du. Psikoanalisiak berak onartua du botere irrika jatorriz dugun barne joera eta sena sakonetakoa dela gizakion izaeran.

Bi ikasleek eskatutako “mesedea” aurrean, Jesusek ikusmira Gurutzera bideratzen saiatzen da. Kristautasunaren historian nabarmen da nola behin baino gehiagotan kristautasunaren muina den “maitasuneko hustuketa” beste ase-bideekin bateragarri egin nahi izan den. Hori bi eskuekin aritzea litzateke: guretik ematea, baina batez ere jasotzea. Horren antzera erantzuten dute bi ikasleak: prest direla kalizatik edaten, baina baita goi-mailako aginte postuak eskuratzen. Behintzat bi pertsonai hauek ez dituzte sakoneko asmoak ezkututzen. Ez dabilta, beste hainbat bezala, hitz eta argudio entzungarriez azpiko asmoak apaintzen eta tolesten.

- Dena den, Biblian ez ote zaigu Jainkoa bera boterez hornitua eta betea agertzen? Horrela izatekotan, ez gintuzke harritu behar bi apostoluak boterea eskuratu nahi izatea, Jainkoaren gisako izatea bailitzateke.

Horren harira Markosen ebanjelioan Jesusek boterearen zentzua hustu nahi du: ez die jarraitzaileei eskatzen euren ahalmen edo gaitasunak Jainkoaren esku utz ditzaten. Bibliako tradizioan Jainkoari leial eta atxikia izatearen esamoldeak Jainkoarekiko morrontza eta zerbitzari hutsaren irudia adierazten dute. Era berean, Jainkoaren gorapen irudiak kortetan jauntxoiei ematen zitzaaien aitormenaren kutsua zuten.

Pasarte honen bukaeran argia da Jesusen esaera: “Gizonaren Semea ez da zerbitzaturia izatea etorri”. Markosen ebanjelioan gurutzeko heriotzaz ematen diren hiru iragarpenetan aipatzen da “Gizonaren Semea titulua”.

- Maisuak ez die eskatzen bere menpekoak izatea, bidelagunak baizik. Joanen ebanjelioan zehazki esaten da “adiskide” izatea espero dela. Ez zaie zeregin zehatzik azaltzen, baizik Jainkoaren eta bere aurrean baliozkoak izatera. Hau da: berari jarraituz Jainkoak bere handitasunetik emango duela.
- Markosek guztiau idaztean badirudi luzaroko begiradaz ari dela. Postu ohoretsuak eskatzen zuen Santiago hori geroago (44. urtean Apostoluen Egintzen arabera) eraila izango zen Jesusen testigantza emateagatik. Antzera azalduko du Joanen ebanjelioak, agian Markosen ildo hau egokituz, Pedrori buruz: Jesusen une larrietako batean lotsati aritu zen, baina gero bizia eman zuen.
- Zertarako idatzi zuen Markosek pasarte hau? Agian hurrengo belaunaldietako kristauok ispilu bezala erabil genezan: gure asmo edo “agenda ezkutua” zein den aztertzeko. Horretarako benetan pasarte eszenan sartu behar dugu eta gure botere nahia antzemateko ausardiarik izan. Behin baino gehiagotan muzin egin geniezaioke testu honi edo antzekoei gurea aplikatu behar

badiogu. Ausartzen bagara, sendotu egiten gaitu. Jesusek, kritika ostean, kemena baitakar, benetakotasunaren kemena. Bere gogoz zerbitzatzeko duena nekatu egingo da, baina baita sendotu ere, benetako izatera helduz. Hortik ez da azaleko lidergorik lortzen. Bai, ordea, sakoneko lidergoa geratzen da. Maitasun bidea urratzen duenak aurrerako bidea zabaltzen duelako.